


# ONGi

INTRODUCE TU FECHA DE NACIMIENTO

Fecha de nacimiento 

Regístrate

Gure proiektua egoera ekonomiko egonkorrean dagoen publiko helduari zuzenduta dago batez ere, eskaintza gehiago egiteko aukera izango dutelako, bertan beharrezkoak ez dituzten produktuez desegiteko aukerarekin. Nahiz eta gure bezero gehienak helduak izan, publiko orokorra lortu nahi dugu, adin ezberdinetako pertsonak parte hartzeko. Izan ere, nerabeak dira teknologietan gehien moldatzen direnak, eta

ezinbestekoa da gazteak direnetik kontzientziazioa hastea. Horregatik, nahiz eta ulertu donazio gehienak helduen partez etorriko direla, gure helburu nagusia publiko gaztea kontzientziatzea izango da.

Gure bezeroak behartsuenak laguntzen dituztela uste dute. Enpatia handia dute, baita bere burua hobetzeko gogoia ere. Ulertzen dute partekatzea beharrezkoa dela eta egoera larrietan dagoen jendea existitzen dela, eta hori konpontzeko zeozer egin nahi dute. Aplikazioan, landu ditugun GKEak ikus daitezke, eta lagundutako pertsonen argazkiak ikus daitezke lortu dituzten produktuekin. Halaber, aipameneren atalean iruzkinak erants daitezke, mundu guztiak ikus dezan nola sentitzen diren gurekin lankidetzan aritu ondoren.

Merkatuaren Segmentazioan marketing masiboa erabili dugu merkatu estrategia gisa. Ez dago segmentaziorik. Estrategia hau egokia da gehiengoaren beharrak parekoak badira, eta honen abantaila nagusia kostuen aurrezkoa da.

Gure bezeroak askotarikoak dira, berdin ematen baitugu pertsonaren sexua, bere etxebizitza mota, erosketa maiztasuna, familia mota etab. Badakigu diru gehien duten pertsonak dohaintza gehien ematen dituztenak direla. Berdin zaie produktu horiek saldu ordez doan ematea, dirurik behar ez dutelako. Beraz, familiako gizartearen diru-sarrerek, errentek eta klaseek eragina dute, baina ez gaitu hainbeste baldintzatzen.

Asko eragiten digu haien bizilekua, oraingoz Bilboko bulego bat besterik ez baitugu. Hortaz, euskaldunon eta ingurukoen arreta erakartzea da gure helburua, errenta altua edo konkretuki ez baxua dutenei bideratuta. Bestalde, haien produktuak beren etxetik jasotzea aukeratzen badute, ez legoke arazorik. Izan ere, gurekin lan egiten duten GKEak nazionalak dira. Hori dela eta, egitan estatu osoko bezeroak onartzen ditugu.

